



## Aurretzako genero eraginaren txostena

### Foru Arau aurreproiektua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2018rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen

#### 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.



## **2. Arau aldaketak**

Foru Arau aurreproiektu honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorren elaborazioa jasotzea. Prestaketa hori Diputatuen Kontseiluak onartutako aurrekontu esparruaren barruan egin da, eta aurreko urtean bezala, emaitzetara bideratutako aurrekontu baten baldintzak betez.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren bidez, baliabide publikoen kudeaketa finantzario on bat lortzeko helburuan sakondu nahi da, aldi berean ziurtatuz baliabide publikoen banaketa ahalik eta efizienteena dela.

Aurreikusitako diru-sarrerei dagokienez, hasiberria den susperraldi ekonomikoari esker %6,79 gehitzen da aurrekontu osoa, %2,21 aurrekontu propioa, eta %3,99 Udalak Finantzatzeko Foru Funtza (hau termino homogeneotan).

Gastu politikek gaurko egoerari aurre egitea izango dute helburu, eta, hori lortzeko, lehentasunezkoa izango da inbertsioak egitea krisiak enpresa eta pertsonentzat izan dituen ondorioak gainditzeko eta produkzio sarea indartzeko, betiere Gipuzkoaren lehiakortasuna bultzatuz.

Bestetik, aurrekontu honek nabarmenki indartzen ditu gizarte politikekara bideratutako baliabideak.

Baina, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko erregulazio guzti horrez gain, Lehen eta Bigaren Xedapen Gehigarriek aldaketa garrantzitsuak sartzen dituzte 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera Pertsona Fisikoen



Errentaren gaineko Zergan aplikagarria den araudian (3/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa) eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren araudian (3/1990 Foru Araua, urtarrilaren 11koa).

Zehazki, proposatzen diren aldaketa nagusiak honakoak dira:

### 1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

- Oinarri orokorraren tarifa (75.1 art.)

Indarrean dagoen tarifa			
oinarria	kuota	gainerakoa	%
0	0	15.550	23,0%
15.550	3.576,50	15.550	28,0%
31.100	7.930,50	15.550	35,0%
46.650	13.373,00	19.990	40,0%
66.640	21.369,00	25.670	45,0%
92.310	32.920,50	30.760	46,0%
123.070	47.070,10	56.390	47,0%
179.460	73.573,40		49,0%

Proposamena			
oinarria	kuota	gainerakoa	%
0	0	15.790	23,0%
15.790	3.631,70	15.790	28,0%
31.580	8.052,90	15.790	35,0%
47.370	13.579,40	20.290	40,0%
67.660	21.695,40	26.060	45,0%
93.720	33.422,40	31.230	46,0%
124.950	47.788,20	57.240	47,0%
182.190	74.691,00		49,0%

- Zenbait kontzeptuen eguneraketa

	Indarrean	proposamena
<b>Batera tributatzeagatik murrizpena (73 art.)</b>		
Biparentala	4.218	4.282
Monoparentala	3.665	3.720
<b>Kuota orokorraren murrizpena (77 art.)</b>	1.389	1.410
<b>Kenkaria ondorengoengatik (79.1 eta-2 art.)</b>		
1	585	594
2	724	735
3	1.223	1.242
4	1.445	1.467
5 edo gehiago	1.888	1.917
6 urtetik beherakoa	335	341
<b>Kenkaria aurrekoengatik (81 art.)</b>	279	284
<b>Kenkaria adinagatik (83 art.)</b>		
65 urtetik gorakoak	334	340
75 urtetik gorakoak	612	622

euroak



## 2. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga (ODZ)

- II Tarifa - II Taldea (21.b art.)

Indarrean dagoen tarifa				Proposamena			
oinarria	kuota	gainerakoa	%	oinarria	kuota	gainerakoa	%
0	0	8.075	5,70%	0	0	8.200	5,70%
8.075	460,28	16.145	7,98%	8.200	467,40	16.390	7,98%
24.220	1.748,65	16.145	10,26%	24.590	1.775,32	16.390	10,26%
40.365	3.405,12	40.375	12,54%	40.980	3.456,94	40.990	12,54%
80.740	8.468,15	80.755	15,58%	81.970	8.597,08	81.970	15,58%
161.495	21.049,78	242.350	19,38%	163.940	21.368,01	245.990	19,38%
403.845	68.017,21	403.675	23,18%	409.930	69.040,87	409.740	23,18%
807.520	161.589,07	1.211.285	28,50%	819.670	164.018,60	1.229.460	28,50%
2.018.805	506.805,30		34,58%	2.049.130	514.414,70		34,58%

- III Tarifa - III Taldea (21.b art.)

Indarrean dagoen tarifa				Proposamena			
oinarria	kuota	gainerakoa	%	oinarria	kuota	gainerakoa	%
0	0	8.075	7,60%	0	0	8.200	7,60%
8.075	613,70	16.145	10,64%	8.200	623,20	16.390	10,64%
24.220	2.331,53	16.145	13,68%	24.590	2.367,10	16.390	13,68%
40.365	4.540,16	40.375	16,72%	40.980	4.609,25	40.990	16,72%
80.740	11.290,86	80.755	20,52%	81.970	11.462,78	81.970	20,52%
161.495	27.861,79	242.350	25,08%	163.940	28.283,02	245.990	25,08%
403.845	88.643,17	403.675	29,64%	409.930	89.977,31	409.740	29,64%
807.520	208.292,44	1.211.285	35,72%	819.670	211.424,25	1.229.460	35,72%
2.018.805	640.963,44		42,56%	2.049.130	650.587,36		42,56%

## 3. Genero eragina

### 3.1. Genero egokitasuna

Proiektu honen barruan nabarmen bi arau aldaketa mota bereizten dira. Alde batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorraren onarpenari lotutako araudia. Beste alde batetik, PFEZn eta ODZn proposatutako aldaketak.



Lehen kasuan, proiektuaren amaierako hartzaileak lurraldeko biztanle guztiak dira; aldiz, bigarren aldaketek eragiten die PFEZ eta ODZko aitortzaileei.

Hortaz:

- amaierako talde hartzailea pertsona fisikoak izanik,
- eta xedapen normatiboak eragina izanda emakumeek eta gizonen baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan,

Ondorioztatu behar da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

## **3.2. Genero eraginaren balorazioa**

### **3.2.1. Hasierako egoera**

Azken urteetan Gipuzkoako gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko erreferentziazko adierazleen bilakaerak, oro har, ibilbide positiboa izan du, emakumezkoen jatorrizko egoera okerragotik abiatuta, beti ere. Hala ere, oraindik ere urrats asko eman behar dira benetako egoera parekidea lortzeko eta mendeetako bazterketa egoeraren ondorioak gainditzeko. Horrez gain, azken urteotako krisi ekonomikoaren ondorioz, gizartearen sektore guztiak kaltetuak izaten ari dira, langabezia areagotuz, ongizate estatuko zenbait zerbitzuetan murrizketak ezarriz, zeharkako zergak handituz... Gainera, errenta maila baxuko eta babesik gabeko pertsonengan eragina askoz kaltegarriagoa izaten ari da, jakin dakigularik, pobreziaren tasa neurtzeko erabiltzen dugun adierazleak emakume eta gizonen arteko arraila altua erakusten duela.



EUSTATEk egiten duen "Errenta pertsonal eta familiarra"-ren datuen arabera, 2014an Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 15.249 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 24.802 eurokoa (%38,5eko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %40,5ekoa da (8.975 euro eta 15.090 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murrizagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %25,2ak 1.500 eurotik behera jasotzen ditu, eta gizonezkoetan talde hori % 14,4koa da. Emakumeen erdia baino gehiagok (%52,6) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %29,6 diren bitartean.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoek baino. Horrela, eta EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako datuetan ikusten da 2017ko lehen seihilabetekoan emakumeen (16-64 urte) okupazio tasa %63,8koa izan zela Gipuzkoan, gizonezkoena %70,1ekoa izan zen bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, emakumeen langabezia tasa 2017ko lehen seihilabetekoan %10,2koa izan zen, gizonena %7,9a izan zen bitartean.

Era berean, emakumeak dira nagusi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (SBE) titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2017ko iraileko datuen arabera, SBEa jasotzen duten pertsonen %56,9 emakumeak dira Gipuzkoan.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Gipuzkoako pobrezia eta bazterkeriaren inkesta, 2014" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekarietatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta



gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan. Horrela, pobrezia iraunkorraren maila bereziki altua da emakumezkoak daramatzaten etxeetan bizi direnen kasuan (%12,8), gizonezkoen daramatzaten %7,8ren aldean.

Pobrezia eta bazterketa arriskua neurtzen duen AROPE tasaren arabera (diru-sarrerara apalak, eskasia material larria eta lan intentsitate apala) emakumezkoen %21,5a dago egoera horietako bat jota egoteko arriskuan, gizonezkoen %17,5aren aldean. Eta emakumezkoak buru dituzten etxeetan, bertan bizi diren %29,4k dute arrisku hori, gizonezkoak buru direnean portzentaje hori %16,6ra jaisten den bitartean.

PFEZren hasierako egoerari buruz, 2017an aurkeztutako aitortpenen (2016ko ekitaldi fiskalari dagozkionak) datu nagusiak honakoak dira:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Aitortpen kopurua	375.686	161.842	213.844	43,1	56,9
Oinarri likidagarria	9.127.074.756	3.398.723.890	5.728.350.866	37,2	62,8
Kuota likidoa	1.628.038.466	553.264.895	1.074.773.571	34,0	66,0

zenbatekoak eurotan

Guztira 375.686 aitortpen aurkeztu dira, eta horietatik %56,9 gizonezkoenak dira eta beste %43,1a emakumezkoenak. Baterako aitortpenen kasuan, eta aitortzaile bat baino gehiago dagoenean, aitortpen osoari oinarri ezargarrían zenbateko handiena duen pertsonaren sexua eman zaio.

Guztira aitortutako oinarri likidagarria 9.127 milioi eurotako izan da, eta horietatik %62,8a gizonezkoek aitortu dute, eta %37,2a emakumezkoek. Eta zergarengatik ordaindutako zenbatekoa osoa 1.628 milioi eurotako izan da, 1.075 milioi (%66,0) gizonek ordaindu dute eta 553 milioi (%34,0) emakumezkoek.



Proiektu honetan aldatu nahi diren zerga kontzeptuei dagokionez, 2016ko aitortpenetan erakusten duten banaketa honakoa da:

Kontzeptua	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emaku meak	Gizonak
Batera tributatzegatik murrizpena	310.511.031	57.878.235	252.632.797	18,6	81,4
Kuota orokorraren murrizpena	509.255.278	218.894.523	290.360.756	43,0	57,0
Kenkaria: ondorengoak	110.758.051	44.138.941	66.619.110	39,9	60,1
Kenkaria: aurrekoak	506.711	211.087	295.624	41,7	58,3
Kenkaria: ondorengoei urteko ordaink.	1.474.849	57.373	1.417.475	3,9	96,1
Kenkaria: adina	41.850.832	15.323.641	26.527.192	36,6	63,4

zenbatekoak eurotan

- Batera tributatzegatik dagoen murrizpenaren %81,4a gizonekoek aplikatzen dute.
- Kuota osoaren murrizpenean gizonezkoek %57,0a metatzen dute.
- Ondorengogatik dagoen kenkariaren %60,1a gizonezkoek aplikatzen dute.
- Aurrekogatik dagoen kenkariaren %58,3a gizonezkoek metatzen dute.
- Ondorengoen urteko mantenua ordaintzegatik dagoen kenkariaren gehiengo nagusia (%96,1) gizonezkoek aplikatzen dute.
- Adinagatik dagoen kenkariaren %63,4a gizonezkoek metatzen dute.

ODZren hasierako egoerari buruz, 2016. urtean zehar II eta III taldeetako zergadunek (aldaketak eragiten dietenak) aurkeztutako aitortpenen datu nagusiak honakoak dira:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Aitortpen kopurua	2.971	1.627	1.344	54,8	45,2
Oinarri likidagarria	233.308.821	130.591.829	102.716.992	56,0	44,0
Ordaintzeko kuota	31.411.713	17.065.538	14.346.175	54,3	45,7

zenbatekoak eurotan





2016an 2.971 aitortpen aurkeztu dira II eta III taldekoak, eta 1.627 (%54,8) emakumezkoenak dira, eta beste 1.344 (%45,2) gizonezkoenak. Guztira aitortutako oinarri likidagarria 233 milioi eurotako izan da, eta horietatik 130 milioi (%56,0) emakumezkoek aitortu dituzte eta 103 milioi (%44,0) gizonezkoek. Zergarengatik ordaindu beharreko kuota dagokionez (guztira 31 milioi euro), 17 milioi (%54,3) emakumezkoek dagozkie eta geratzen diren beste 14 milioi (%45,7) gizonezkoek.

### **3.2.2 Aztertutako neurriak**

#### **3.2.2.1 Aurrekontu Orokorrei buruzko araudia**

2018ko aurrekontu proiektu honetako programak genero ikuspegitik aztertu dira. Programa horiek sailkatuta daude eragin handikoak, eragin ertainekoak eta eragin txikikoak bezala.

Azterketa eragin handiko eta ertainetara mugatu da. Azkenean, 42 programa aztertu dira, aurrekontu propio osoaren %71,9. Horrela, aurrekontu propio osoa 794 milioi eurokoa bada, aztertutako 42 programen zenbatekoa 570 milioikoa da. Horietatik, 21 programa garrantzi handikoak dira generoaren ikuspegitik eta kudeatutako gastua 412 milioikoa da (%51,9). Bestalde, garrantzi ertaina duten beste 21 programak kudeatutako gastua 158 milioikoa da (%20,0).

Zenbateko horiek ikusita, esan dezakegu, programa horiek ondo ordezkatzeko dituztela foru aldunditik bultzatutako politika publikoak.



### 3.2.2.2 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudia

2016ko ekitaldi fiskaleko aitortpenetatik abiatuta (2017an aurkeztuak) aurreikusi da proposatutako aldaketek 14,8 milioi eurotako eragin negatiboa izango dutela zerga-bilketan.

Zenbateko oso horretatik, %65,4a gizonezkoei dagokio, eta ondorioz, zergarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa 9,7 milioi eurotan jaitsiko zaie. Emakumezkoen kasuan, ordaintzeko zenbatekoaren jaitsiera 5,1 milioi eurotako da (guztiaren %34,6).

Kontzeptua	Zerga-bilketa eragina				
	Euroak			%	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Batera tributatzegatik murrizpena	-1.006.162	-166.578	-839.584	16,6	83,4
Tarifa	-6.257.139	-2.086.085	-4.171.054	33,3	66,7
Kuota orokorraren murrizpena	-5.934.120	-2.317.035	-3.617.085	39,0	61,0
Kenkaria: ondorengoak	-1.264.618	-466.046	-798.572	36,9	63,1
Kenkaria: aurrekoak	-5.522	-2.238	-3.284	40,5	59,5
Kenkaria: ondorengoei urteko ordaink.	-18.137	-593	-17.544	3,3	96,7
Kenkaria: adina	-338.820	-97.137	-241.683	28,7	71,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>-14.824.518</b>	<b>-5.135.713</b>	<b>-9.688.805</b>	<b>34,6</b>	<b>65,4</b>

Zerga-bilketaren eragina kontzeptuka aztertuta, honakoa nabarmentzen da:

- Batera tributatzegatik dagoen murrizpenaren ondorioz emandako jaitsieraren %83,4a gizonezkoek eramaten dute.
- Ondorengoengatik dagoen kenkariaren ondorioz emandako jaitsieraren %71,3a gizonezkoek eramaten dute.



### 3.2.2.3 Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko araudia

2016an aurkeztutako aitopenetatik abiatuta aurreikusi da proposatutako aldaketek 141.687 eurotako eragin negatiboa izango dutela zerga-bilketan.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Ordaintzeko kuota 2016	31.411.713	17.065.538	14.346.175	54,33	45,67
Aurreikusitako ordaintzeko kuota	31.270.027	16.985.106	14.284.920	54,32	45,68
Aldea	-141.687	-80.432	-61.255	56,77	43,23

Zenbateko oso horretatik, emakumezkoek %56,77a eramaten dute (80.432 euro) eta gizonezkoek 61.255 euro (%43,23).

### 3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

Alde batetik, eta aurrekontu araudiari dagokionez, horien eragina genero aldetik zehaztasun handiagoarekin egiten da proiektuarekin batera doan txostenean: "2018ko Aurrekontuak generoaren ikuspegitik duen eraginaren azterketa – Txosten exekutiboa". Dударik gabe, aurrekontu hauek gipuzkoarron bizi-kalitatean eragin handia dute; eta beraien xedeetako bat da generoak sor ditzakeen desorekak ahalik eta gehien murriztea. Helburu hori zein neurritan lortuko duen eta bere egokitasun maila ondoren aztertu beharko da. Baina dudarik gabe, aurrekontu hauek baldintzak eta neurriak ipintzen dituzte, hori horrela izateko.

PFEZren zerga araudian proposatutako neurriei buruz, emakumezkoek ordaintzeko zenbatekoaren jaitzieraren %34,6a eramaten dute, eta kuota likidoan (zergarengatik ordaindu beharrekoa) duten portzentajea %34,0 da. Gizonezkoek jaitzieraren %65,4a eramaten dute, eta beraien portzentajea zergarengatik ordaindu beharreko zenbatekoan %66,0 da.



Beraz, badirudi proposatutako neurriek ez dutela aldaketa nabarmenik sartzen emakume eta gizonen arteko zergaren banaketan.

#### **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>
Kuota likido originala	34,0	66,0
Zerga-bilketa eraginaren banaketa	34,6	65,4

ODZren zerga araudian proposatutako neurriei buruz, emakumezkoek ordaintzeko zenbatekoaren jaitsieraren %56,8a eramaten dute, eta ordaintzeko kuotan duten portzentajea %54,3 da. Gizonezkoek jaitsieraren %43,2a eramaten dute, eta beraien portzentajea zergarengatik ordaindu beharreko zenbatekoan %45,7 da.

Kasu honetan, nahiz eta badirudi emakumezkoak onura zertxobait handiagoa eramaten dutela, zenbateko nominal osoak ikusita, ez du ematen proposatutako neurriek aldaketa nabarmenik sartzen dutenik emakume eta gizonen arteko zergaren banaketan

#### **Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga**

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>
Ordaintzeko kuota originala	54,3	45,7
Zerga-bilketa eraginaren banaketa	56,8	43,2

Beraz, eta aurretik aipatutako guztia kontuan hartuta, esan dezakegu neurri hauek ez dakartela aldaketa sustantiborik genero desberdintasunaren inguruan gaur dagoen egoera aldarazteko.



Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu egin dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak. Alde batetik, Ekonomi Ituanren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak. Eta bestalde, ordenamendu juridikoko beste arau batzuetan espresuki zehaztuta daudelako errespetatu behar direnak.

Donostia, 2017ko urriaren 20a

io  
KaW

**Sin.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**  
**AZTERLANETAKO ATALBURUA**